

## Euskaltzaindia XIV. *Euralex* Nazioarteko Kongresuan

Euskaltzaindiak parte hartu du uztailaren 6tik 10era, Frisiako Leeuwarden/Ljouwert hiriburuan egin den XIV. *Euralex* kongresuan. Antolatzaileak Fryske Academy (Frisieraren Akademia) eta Leiden Instituut voor Nederlandse Lexicologie (Nederlanderaren Leidengo Lexikologia Institutua) izan dira. Han aurkeztu eta eztabaidatu diren gaiak honako hauek izan ziren:

- Lexikografia eta Lexikologia konputazionalak
- Hiztegitza-prozesua
- Lexikografia- eta lexikologia-egitasmoei buruzko txostenak
- Elebitako lexikografia
- Espezialitate-hizkeretako lexikografia- Terminologia eta Terminografia
- Lexikografia historikoa eta etimologikoa
- Hiztegien erabilera
- Fraseologia eta kolokazioa
- Lexikografiarako garrantzia duten lexikologia-gaiak
- Gutxiengo-hizkuntzetako edo estaturik gabeko hizkuntzetako lexikografia
- Zeinu-mintzaira

Euskaltzaindiaren izenean Iker Sailburua izan zen eta txosten bat aurkeztu zuen: «The Lexicographic Work of Euskaltzaindia / The Basque Language Academy 1984-2009».